

LUKO GOTZAIN EUSKALDUNA

Zenon Uriguen
pasiotarra



“Arrituta bizi gara gure urietako etxe ederrak ikusita, baña EZ gure urko lagunen ontasuna eta onberatasuna ikusita”
Zenon de Elea

JATORRIA

Ziurtasun argi barik, baten batek bere buruz ta aburuz, esan dau Luko Gotzain jauna Sevillan jaio zala. Mañarikua, historialari ospetsuak iru datu egiaztatzen dauz:

- A) Luko Gotzainaren jatorria Araba da.
- B) Bere senidetasuna Lukoko lagun batzuekin ukatu eziña da.
- D) Berak egindako testamentuak argi adierazten dau. Bere izena: **Juan Bernal Diaz de Luko.**

KONDAIRA GORAGARRIA

Juan Bernal Diaz de Luko 1543 Calahorrako eliz barrutian Gotzain izateko autatua izan zan. Urte onetan apirilaren 15'an San Inaziori idazten dautso: "Calahorrako Gotzain egin nabe. Urduri nago. Ondo dakit aundi-naiak, askotan, elizari ez dautsola izen ona emoten. Nik, barriz, alegiñak egingo ditut erriaren serbitzari izateko, kristau ikasgaiak eta egintzak bizitzeko". Mañarikua jaunak gorespen ugari daukoz Lukoren alde. "Luko da beste gotzain ondoan gorengo maillakoa. Trentoko Eliz Batzarrean bizi bizi ekin eban idazki garrantzi aundikoak idazten. Ondo merezi dau urrezko idazkietan bere izena aipatzea euskal errian. Berebizikoa zan bere ardura eta erabakia kristau serbitzari izateko gure erriaren alde. Bere lenengo urteetan Gasteizen bizi izan zan eta Lukon sendotza sakramentua ospatu. Gazteizen sinodo bat egin eban.

EUSKAL ERRIAREN FEDEA



“Eten gabeko lanak dana gainditzen dau” Luko gotzainak Euskal erriaren fedea eta garapena goi maitasunez maite dau. Bere egunetan, Oñatiko Ikastetxe Nagusia, Sancti Spiritus, 1540tik aurrera eraikia da. Bere egillea ta ongillea Rodrigo Saez de Mercado Zuazola oñatiarra da. Bere asmoa? Teolojia, legeak, Kanon, arte, medikuntza irakasteko. Luko Gotzaiñak pozez beterik Rodrigo

Avilako gotzainari esker onez zorion beroa bialtzen dautso Oñatiko Eliz-Ikastetxea'gaitik. Lukok Loioako Inaziori eskatzen dautsoz euskal jesuitak Kristoren Barri-Ona zabaltzeko. Benetan Luko gotzaina "Euskaldunen aingerua" da. Inaziorik Bizkaiara bialtzen dauz Jesuita bi. Luko gotzainak nai dau Begoñako Santutegia izan daitela elizaren erdi gunea Bilbon eta Bizkaian fede bizia ta eraginkorra zabaltzeko.